

«SAREKIN SARIAK 2025» | OINARRIAK

1. SARIEN XEDEA

Lehiaketa hau DEMAK (Enplegu eta Ekintzailetza Foru Agentzia) eta Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarte Kohesio eta berdintasun Sailak antolatu eta sustatu – hurrenez hurren– egin dute, Sarekin Sarearekin lankidetzan arituz. Izan ere, lehiaketaren helburuak hurbileko ekintzailetzari balioa ematea eta Bizkaiko balantze hirukoitzean (ekonomia, gizarte eta ingurumena) oinarritutako ekonomia jasangarria bultzatzea dira.

2. PARTE-HARTZAILEAK

Egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duten enpresei zuzenduta dago lehiaketa:

- Edozein forma juridikoa duten enpresak, hala nola Bizkaiko Lurralde Historikoko merkataritza-sozietateak, kooperatibak, enpresaburu indibidualak, sozietate profesionalak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak, besteak beste.
- Edozein sektoretako enpresak, betiere gizarte- edo ingurumen-eragin jasangarria badute.

3. KATEGORIAK ETA OHOREZKO SARIA

Kategoriak:

- A) Jasangarritasuna ardatz duen eta Balantze Hirukoitzarekin bat datorren enpresa.
- B) Enpresa-eskualdaketaren eredu den enpresa.

Ohorezko saria

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Sailak –sariak sustatzen dituen erakundea den aldetik– ohorezko sari instituzional bat eman ahal izango dio bere ibilbidean zehar hurbileko ekintzailetzari nabarmen lagundu dion pertsona edo erakunde bati.

4. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Parte hartu ahal izateko, enpresek baldintza hauek bete beharko dituzte:

A kategoriarako:

- Enpresak **5 eta 10 urte arteko antzintasuna izatea** jarduera ekonomikoen erregistroan, hots, 2015 eta 2020 artean sortuak.
- Enpresak **dirulaguntza bat jaso izana «Autoenplegua sustatzea eta enpresak sortzea» izeneko programaren barruan**. Programa hori Foru Dekretuak arautzen du, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Sailak eman behar izan du dirulaguntza 2015eko eta 2020ko deialdien artean.

B kategoriarako:

- Enpresak **enpresa-eskualdaketagatiko dirulaguntza jaso izana «Ekintzailetzako ekimenen sustapena» programaren barruan (3. atala)**. Programa hori Foru Dekretuak arautzen du, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Sailak eman behar izan du dirulaguntza, 2021eko deialditik aurrera.
- Enpresak 2021-2024 tartean alta hartu izana jarduera ekonomikoen erregistroan.

Bi kategorietarako:

- **Egoitza soziala Bizkaian izatea.**
- Enpresak **zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea**. Hori egiaztatzeko, enpresaren legezko ordezkariak erantzukizunpeko adierazpen bat sinatuko du, erakundeak emandako ereduari jarraikiz.
- **Enpresa bakoitzeko, hautagaitza bana** onartuko da, eta IFZ/IFKren bidez identifikatuko du bere burua.

5. IZENA EMATEKO EPEA ETA MODUA

Parte hartzeko hautagaitzak aurkezteko epea **2025eko ekainaren 26tik uztailaren 16ra** izango da, biak barne.

Hautagaitzak eta eskatzen diren agiriak Sarekin erakundearen webgunean (www.sarekin.eus) eskuragarri dagoen formulario elektronikoaren bidez aurkeztu eta erantsiko dira soilik.

Enpresa aurkezteko, erakundeak emandako eredua erantsiko da, zeina www.sarekin.eus webguneko «Sarekin Sariak 2025» atalean eskuragarri dagoen.

Ez da agiririk onartuko formatu fisikoan. Eskatutako dokumentazioa PDF formatuan erantsi beharko da.

Erakundea emandako posta elektronikoaren edo telefono-zenbakiaren bidez jarriko da harremanetan, eta ez du inolako erantzukizunik izango harremanetan jartzea eragozten duten datuetan akatsik balego. Kasu horretan, baliteke hautagaitza lehiaketatik kanporatzea.

Epez kanpo, osatu gabe edo gaitu gabeko kanalen bidez aurkeztutako hautagaitzak automatikoki baztertuko dira.

Era berean, oinarri hauetan jasotako baldintzak bete ezean, hautagaitza ez da onartuko eta ez du lehiaketan parte hartuko.

6. EPAIMAHAIA

Bizkaiko ekintzailertza-ekosistemako profesional ospetsuek osatuko dute epaimahaia, zeina modu paritarioan (gizonen eta emakumeen parte-hartzeari dagokionez) egituratuko den:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Saileko ordezkari bat, epaimahaiburua izango dena.
- DEMA (Enplegu eta Ekintzailertzako Foru Agentzia) ordezkatzeko duen pertsona bat.
- Sarekin Sarearen ordezkariak; ordezkari bana talde hauetako bakoitzeko:
 - Erakunde publikoak.
 - Elkarrekin, Fundazioak, Sareak.
 - Hezkuntzaren arloko erakundeak.

Epaimahaia osatuko duten pertsonen eta erakundeen izenak Sarekin-en webgunean (www.sarekin.eus) argitaratuko dira, «Sarekin Sariak» atalean.

Epaimahaiak inpartzialtasuna eta gardentasuna bermatuko ditu aurkeztutako hautagaitzak baloratzean. Hala ere, haren erabakiak apelaezinak izango dira.

7. BALORATZEKO ETA PUNTUATZEKO IRIZPIDEAK

A KATEGORIA: jasangarritasuna ardatz duen eta Balantze Hirukoitzarekin bat datorren enpresa.

Enpresa baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- 1- Balantze Hirukoitzarekin (gizartea, ingurumena eta ekonomia) bat datorren enpresa izatea.
- 2- Kalitatezko enplegu inklusiboa sortzen duen enpresa izatea.
- 3- Honako hauen alde egiten duen kudeaketa-eredua duen enpresa izatea:
 - Genero-ikuspegia.
 - Gobernantza-eredu etiko eta arduratsua.
 - Gardentasuna.
 - Langileak kapitalaren parte baten jabeak izatea.
 - Talentua.
- 4- Negozioak hazteko ahalmena izatea.
- 5- Berrikuntza (teknologikoa, soziala eta ekonomikoa).
- 6- Enpresaren aurkezpena sendoa izatea.

B KATEGORIA: enpresa-eskualdaketaren eredu den enpresa.

Enpresa baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- 1- Gizarte-kohesioa, enpleguari eustea.
- 2- Balantze Hirukoitzarekin (gizartea, ingurumena eta ekonomia) bat datorren enpresa izatea.

- 3- Kalitatezko enplegu inklusiboa sortzen duen enpresa izatea.
- 4- Honako hauen alde egiten duen kudeaketa-eredua duen enpresa izatea:
 - Genero-ikuspegia.
 - Gobernantza-eredu jasangarri, etiko eta arduratsua izatea.
 - Gardentasuna.
 - Langileak kapitalaren parte baten jabeak izatea.
 - Talentua.
- 5- Negozioak hazteko ahalmena izatea.
- 6- Berrikuntza (teknologikoa, soziala eta ekonomikoa).
- 7- Enpresaren aurkezpena sendoa izatea.

GEHIENEO PUNTUAZIOAK:

Epaimahaiak ezarritako irizpideei jarraituz baloratuko du hautagaitza bakoitza, eta, irizpide bakoitzeko, puntuazio bana emango du. Puntuazio hori ezin da izango taula hauetan ezarritako gehienekoak baino handiagoa.

Hautagaitzek 100 puntu jaso ahal izango dituzte gehienez.

Epaimahaiak irizpide kualitatiboak erabili ahal izango ditu berdinketak ebazteko edo saria eman gabe uzteko hautagaitza bakar batek ere ez badu onargarritzat jotzen den puntuazioa lortzen.

A KATEGORIA:

Balantze Hirukoitzarekin bat datorren enpresa izatea	30
Kalitatezko enplegu inklusiboa sortzen duen enpresa izatea	20
Kudeaketa-eredua	15
Hazteko ahalmena	10
Berrikuntza	20
Enpresaren aurkezpena	5

GEHIENEO PUNTUAZIOA, GUZTIRA: 100 puntu

B KATEGORIA:

Gizarte-kohesioa eta enpleguari eustea	30
Balantze Hirukoitzarekin bat datorren enpresa izatea	15
Kalitatezko enplegu inklusiboa sortzen duen enpresa izatea	15
Kudeaketa-eredua	10
Hazteko ahalmena	10
Berrikuntza	15
Enpresaren aurkezpena	5

GEHIENeko PUNTUAZIOA, GUZTIRA: 100 puntu

8. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA ETA AZKEN AKTA

Enpresak baloratu ondoren, epaimahaiak azken akta idatziko du. Akta horrek lortutako puntuen arabera enpresen zerrenda jasoko du, baita baloratutako enpresaren identifikazio-datuak, irizpide bakoitzean lortutako puntuazioa eta lortutako guztizko puntuazioa ere.

Gainera, kategoria bakoitzean lehen postua lortu duen enpresari dagokionez, garaipen hori eta, ondorioz, saria lortzea ahalbidetu duten zergatiak azalduko dira aktan.

Kategoria bakoitzeko bigarren postua lortu duten enpresek «Erreserbakoak» izatera izango dute, eta lehenengo postua lortu duen enpresak ezin izango balu saria jaso (kontingentziaren bat dela eta), saria jasotzeko aukera izango lukete.

9. SARIAK: ENPRESA IRABAZLEENTZAKO ONURAK

Enpresa irabazleentzako saria hurbileko ekintzailatza ikusarazteko eta zabaltzeko aintzatespen publikoa da.

Kategoria bakoitzean, honako sari hauek emango zaizkio enpresa irabazleari:

- Aintzatespen publikoa «Sarekin Sariak 2025» sari-banatze ekitaldian.
- Sariaren berri emateko sustapen-edukiak (bideo bat).
- Oihartzuna hedabide eta sare sozialetan.

Sariek ez dute dirua barne hartzen. Horiek jasotzeak ez du kontraprestazio ekonomikoak jasotzeko eskubiderik sortzen, eta ez du inolako kontratu-harremanik ezartzen erakundearekiko.

10. SARIAK ENPRESA IRABAZLEEI EMATEA

Enpresa irabazleek «Sarekin Days 2025» ekintzailletza-jardunaldien itxiera-ekitaldiarekin batera ospatuko den ekitaldi publikoan jasoko dute aintzatespena, Bizkaiko ekintzailletza-ekosistemako komunitatearen ordezkarien aurrean.

LEGE-ARAU BIDEA

11. OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du osorik onartzen direla oinarri hauek, bai eta erakundeak eta epaimahaiak hartzen dituzten erabakiak ere; izan ere, erabaki horiek apelaezinak izango dira.

Era berean, erakundeak oinarri hauetan aurreikusten ez den edozein egoera modu eztaba daezinean ebazteko eskubidea izango du. Ildo horretan, www.sarekin.eus webgune ofizialean argitaratutako bertsioa lehenetsiko da beste edozein komunikazio edo informazioaren gainetik.

Ezinbestea, ezusteko egoerak edo lehiaketa garatzea eragozten duten legezko ezarpenak egotekotan, erakundeak lehiaketa osorik edo zati batean aldatu, eten edo ezeztatu ahal izango du, eta parte-hartzaileek ezin izango dute inolako konpentsaziorik edo kalte-ordainik eskatu.

Erabaki horiek lotesleak izango dira, eta ezin izango dira errekurtsio baten bidez aldatu.

12. HEDAPENA ETA JABETZA INTELEKTUALA

Pertsona eta erakunde parte-hartzaileek bermatzen dute aurkeztutako materialek (agiriak, irudiak, logotipoak, bideoak, etab.) ez dituztela hirugarrenen eskubideak urratzen, bereziki jabetza intelektualari eta industrialari dagokienez.

Erakundeak ez du inolako erantzukizunik izango parte-hartzaileek emandako dokumentazioaren ondoriozko arau-hauste legalak gertatzekotan.

Parte-hartzaileek eskubidea ematen diote erakunde antolatzaileari proiektuaren izena, marka, logotipoa, irudi korporatiboa eta oinarritzko edukiak erabiltzeko eta zabaltzeko, sustapen-, dibulgazio- edo erakunde-helburuetarako. Horretarako, erakunde

antolatzaileak edozein bitarteko, euskarri edo sare sozial erabili ahal izango ditu, geografia- edo denbora-mugarik gabe. Erakundeak parte-hartzaileek emandako gainerako informazioaren konfidentzialtasuna bermatuko du.

Erakunde antolatzaileak saritutako enpresa behar beste sustatuko du egokitzat jotzen diren nazioko edo eskualdeko hedabideetan eta bikaintasunaren eta jardunbide egokien adibideak behar dituzten plataformetan.

Bestalde, enpresa irabazleak sariaren berri eman ahal izango du idazpuru, iragarki eta memorien bidez (saria jaso duen urtea zehaztuz), baita edozein komunikabideren bidez ere.

13. ERANTZUKIZUNIK EZA

Erakundeak ez du erantzukizunik izango akats teknikoen, zerbitzu-etenduren, datu-galeren, baimenik gabeko sarbideen edo lehiaketan parte hartzeari eragiten dion eta bere kontrolpean ez dagoen beste edozein gorabeheraren ondoriozko kalte edo galerengatik.

Era berean, ez du bere gain hartuko erabiltzaileek webgunea behar ez bezala erabiltzearen ondoriozko kalteak, ezta parte-hartzaileek saria lortzeari dagokionez izan ditzaketen itzaropen subjektiboak ere.

Lehiaketan parte hartzeak ez du esan nahi erakundearekin kontraturik, aurrekontraturik edo lan- edo merkataritza-harremanik dagoenik.

14. PARTE-HARTZAILEAK ETA IRABAZLEAK BAZTERTZEA

Honako kasu hauetan, erakundeak hautagaitzak baztertzeako eskubidea izango du uneoro: oinarri hauek ez betetzea, iruzurra edo faltsukeria gertatu delaren susmoak izatea, eskakizunak ez betetzea edo emandako datuen egiazkotasunik eza.

Era berean, saria jaso ondoren baldintzak betetzen ez direla, edo hori justifikatzen duen zergatiren bat egiaztatzen bada, erakundeak saria jaso duen sarituari emandako aitorpena baliogabetu ahal izango du.

15. PRIBATUTASUN-POLITIKA, DATUEN BABESA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

2016/679 (EB) Erregelamenduari (DBEO) eta 3/2018 Lege Organikoari jarraikiz, parte hartzeko formularioaren bidez jasotako datu pertsonalak erakunde antolatzailearen (DEMA, Enplegu eta Ekintzaitetzako Foru Agentzia; IFK: G48408405; helbidea: Fanderia kalea 2, Barakaldo, Bizkaia) titulartasuneko fitxategi batean sartuko dira (tratamenduen arduraduna den aldetik), «Sarekin Sariak 2025» ekitaldiaren parte-hartzea kudeatze aldera.

Datuak lehiaketa kudeatzeko eta legezko betebeharrak betetzeko behar den denboran gordeko dira. Erakundeak konpromisoa hartzen du hautatzen ez diren hautagaitzen konfidentzialtasuna gordetzeko eta dokumentazio guztia lehiaketa amaitu ondoren ezabatzeko, enpresa finalistei eta sarituei dagokiena izan ezik; dena den, azken horien datuak sustapen-helburuetarako soilik erabili ahal izango dira.

Parte-hartzaileek baimena ematen dute fitxategiaren ardura duen erakunde antolatzaileak (DEMA) hautagaitzak aurkezteko fitxategian bildutako datuak sariak emango dituen epaimahaia osatuko duten erakundeekin parteka ditzan, hautagaitzen balorazioa egiteko helburu bakarrarekin. Finalistak baloratu ondoren, erakunde horiek tratatutako datuak ezabatuko dituzte.

Interesdunen eskubideak: parte-hartzaileek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, transferitzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, eta, horretarako, honako helbide elektroniko hau erabil dezakete: info@sarekin.eus.

Halaber, Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamazio bat aurkezteko eskubidea dute.

Pribatutasun-politika osoa ikusi ahal izateko, sakatu hemen:
<https://www.sarekin.eus/eu/politica-privacidad>

16. DEUSEZTASUN PARTZIALA

Agintaritza eskudunen batek igorritako ebazpen irmoaren bidez oinarri hauetako klausularen bat deuseztatzen bada, edo legez kontraktotzat edo ez-eraginkortzat jotzen bada, deuseztapen horrek ez du eraginik izango gainerako klausulen baliozkotasunean; hala, klausula horiek indarrean jarraituko dute, betiere deuseztapenak lehiaketaren funtsezko xedeari eragiten ez badio.

17. LEGERIA, FORUA ETA AUZITEGIAK

Espainiako legeriak arautzen ditu oinarri hauek. Horien interpretazio edo betearazpenetik erator daitekeen edozein eztabaidarako, aldeak Bilboko epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira berariaz, eta uko egiten diote legokiekeen beste edozein foruri.

Aldez aurretik, alderdiek edozein gatazka adiskidetasunez negoziatzeko konpromisoa hartzen dute; eta, era berean, Bizkaiko erakunde ofizialek eskainitako bitartekaritza- edo adiskidetze-prozedurak epaiketa aurretik baliatzeko konpromisoa hartzen dute.

Lehiaketa hau ez dago ez Sektore Publikoko Kontratuen Legearen mende, ez dirulaguntza publikoen araubide orokorraren mende.

18. OINARRIAK ALDATZEA

Lehiaketa behar bezala garatzen dela bermatzeko beharrezkoa izatekotan, erakundeak oinarri hauek aldatu ahal izango ditu, betiere aldaketa horiek parte-hartzaileek jada eskuratutako eskubideak kaltetzen ez badituzte.

Aldaketa oro lehiaketaren webgune ofizialaren bidez jakinaraziko da (www.sarekin.eus), eta bertan jasoko da oinarrien bertsio eguneratua (hots, indarrean dagoena).

19. EZINBESTEA

Erakundea ez da erantzule izango konkurtsoa atzeratzen, aldatzen edo ezeztatzen bada, betiere egoera horiek ezinbesteko egoeren, ustekabeko gertaeren edo agintari eskudunen xedapenen ondorio badira. Era berean, erakundeak ez du erantzukizunik izango osasun-larrialdiko egoerak, hondamendi naturalak, gudak edo ordena publikoaren nahasmendu larriak gertatzen badira.

20. HIZKUNTZA ETA NAGUSITASUNA

Oinarri hauek euskaraz eta gaztelaniaz daude eskuragarri. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazko bertsioa nagusituko da.

21. SARIAK EZ ESLEITZEA

Epaimahaiak eskubidea izango du oinarri hauetan aurreikusitako sari-kategoria bat, batzuk edo guztiak hutsik uzteko, baldin eta, bere iritziz, aurkeztutako hautagaitzek ez badute lehiaketan eskatutako kalitate- eta eragin-maila, ezarritako irizpideekiko egokitasuna edo gutxieneko baldintzak betetzen.

Erabaki hori arrazoitua eta behin betikoa izango da, eta ez da haren aurkako errekurtsio edo erreklamaziorik onartuko. Ahalmen hau gauzatzekotan, pertsona edo entitate parte-hartzaileek ez dute konpentsazioa edo kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izango.